

Auzolandegietan parte hartzeko baldintzak eta agiriak

Izena emateko baldintzak:

- 1.- EAEko udalerriren bateko erroldan inskribatuta egotea, Auzolandegiak 2009 programa arautuko duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik (apirilaren 20a).
- 2.- 15-30 urte bitartekoa izatea. Hala ere, auzolandegi bakoitza adin-tarte jakin bateko gazteentzat izaten da. Adingabe emantzipatugabea izanez gero, guraso-agintea edo tutoretza dutenen baimena, beharrezkoa izango da.
- 3.- Nazioarteko auzolandegietan, hau da, munduko edozein herrialdeetako gazteentzako diren auzolandegietan parte hartzeko:
 - gutxienez 18 urte izatea auzolandegia hasten den egunean;
 - ingelesez ondo hitz egitea. Zenbait auzolandegitan beste hizkuntzaren bat jakitea eska dezakete: frantsesa edo alemana, esaterako.

Nazioarteko auzolandegiak atzerrian izaten dira, baina baita Euskadin eta gainerako autonomia-erkidegoan ere.

Eusko Jaurlaritzara bidali behar dituzun agiriak:

Behin izena emanda, etxean jasoko dituzun agiriak behar bezala osatuta eta sinatuta bidali beharko dituzu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzara, honako hauek erantsita:

- 1.- Izena emateko orria, behar bezala osatua eta sinatua.
- 2.- Nortasun-agiriaren kopia, atzerritar-txartelaren kopia edo pasaportearena.
- 3.- Erroldatze-egiaztagiria, Auzolandegiak 2009 programaren deialdia EHAAn argitaratu ondoren egindakoa (apirilaren 20a). Egiaztagiri hau Internet bidez eskura daiteke udal batzutan, adibidez: [Bilbon](#), [Donostian](#) eta [Gazteizen](#). Kontsultatu zure udalean.
- 4.- Adingabe emantzipatugabea izanez gero, guraso-ahala edo tutoretza duenaren baimena.
- 5.- Adingabe emantzipatua izanez gero, emantzipazioa egiaztatzen duen Erregistro Zibilaren agiria.
- 6.- Ordainketaren frogagiria, beste autonomia-erkidego bateko auzolandegia aukeratzen baduzu.
- 7.- Osasun-txartelaren kopia (OSAKIDETZAko edo antzeko txartelarena).

Eskatutako dokumentazio guztia Gazteria Zuzendaritzara **bidaltzeko 5 egun natural** dituzu, Eusko Jaurlaritzaren gutuna etxean jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horren azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Eskatutako agiriak zehaztutako epean **bidaltzen ez badituzu, plaza galduko duzu**. Eta ordaindutako 72,00 euroak berreskuratzeko, egiaztatu egin beharko duzu auzolandegia antolatu duen autonomia-erkidegoak kuotak itzultzeko aurreikusi dituen kasuetako bat gertatu zaizula.